



Iñaki Martínez de Luna

♦ SOZIOLOGOA

Alavesek 1, Errealak 0?

NICOLAS TXIKI frantziarrak esana omen da: “Errealitateak ez du inongo garrantzirik. Pertzepzioa da balio duen gauza bakarra”. Hau da, Nicolas Sarkozy esana, Lionel Jolyri lapurtutako aipu baten arabera. Eta David Anautek mintzairaren jatortasunaz, hauxe idatzi berri du: “Jakina, jatortasuna ez baita kontu objektiboa, gure gogoan dago ‘jatortasun’ hori, gure pertzepzioan, oso psikologikoa da”. (*Jakin*; 204).

Pertzepzioak pertzepzio, euskalgintzan hautematen denaren inguruko susmo bat dut, hantemenka izandako kontrasteetatik aterata: euskaltzale gipuzkoarren gogo-aldarte lurretik dago eta arabarrena, aldiz, “zerua ukitzeko puntuan”.

Egia da Arabako euskalgintza herritarrak eta instituzionalak jauzi kualitatiboa egin dutela eta, lankidetzari esker, helduleku berri bezain garrantzitsuak sortzen ari direla, hala nola *Euskara-ren Etxea* edota *Alea* astekaria; aldaketa handia eman da hizkuntza-dinamikan eta norabidean. Baina, egunerokoaren gordina begi-bistakoa da oraindik euskararentzat. Hortaz, hizkuntza-egoeraz Arabako euskalgintzan legokeen euforia, hauteman puztua litzateke.

Gipuzkoako balorazio okerraren sorburua beste nonbait legoke. Giro euskaltzale batzuegan dagoen —edo “legokeen”, hobeto— “etsipen puntua” ustezko “eta gezurrezko” abiapuntuan datza. Izan ere, Gipuzkoa ez da uste edo azaldu nahi izan den bezain euskalduna. Erdarak leku handia hartu duen arren, hizkuntza-egoeraren gaineko ekuazio sinple —sinpleegia—

osatu da askotan: “Giputza berdin euskalduna”. Auto-irudi erabat faltsutua, “euskaldun planta” egin ohi dutenena. Ezin egokiagoa hori ilustratzeko Jonjo Agirrek idatzitakoa: “Hauxe bai abertzale erdaltzaleen artean kirol nazionala: plantagintza (itxuragintza, euskara batuan)”. (*erabili.com* 2014-12-17).

Arabako zein Gipuzkoako kasuetan, akatsa berbera da: errealitatearen irakurketa zuzenik eza, iraganean edota gaur egun. Izan ere, inon euskarak baldintza eta, baita ere, babes egokiak baditu, Gipuzkoan da, eta erabilerak gorantz jarraitzen du; baina, ez lehen ezta orain ere, Gipuzkoa ez da batzuek uste bezain euskalduna. Araba, bestalde, ahaleginetan dabil oraindik euskara “armairutik atera dadin”, baina armairuko atea ireki egin da.

Inon euskarak baldintza eta, baita ere, babes egokiak baditu, Gipuzkoan da, eta erabilerak gorantz jarraitzen du; baina, ez lehen ezta orain ere, Gipuzkoa ez da batzuek uste bezain euskalduna

Sarkozyk uste duenaren kontra “pertzepzioa ez da balio duen gauza bakarra”, are gutxiago errealitateari ongi egokitzen ez bazaio. Alavesek oraindik bigarren mailan badarraio eta Errealak lehenbizikoan, biak konpetizio betean. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Ekhiñe
Eizagirre

Doinua: Espainian behera.



Ondarroako Topaketa Feministarako jarriak

Nolakoa nahi duzu zuk Euskal Herria? nolakoa da aizu, zure argazkia? nik irudikatzen dut erabat berria elkar zainduko duen aberri txikia parekidea eta gure eskuz josia!

“Ez gara inorenak” dio esaldiak gureak dira gure gorputz ta biziak gure eskubideak desira bustiak familia eredu anitz ta berriak hanka arteak eta gorputz biluziak!

Zertarako genero prefabrikatuak? estigmatizatuaz bestean hautuak bilakatu gaitezen haien deabruak subjektu feminista ta intsumituak plazerrez iraultzeko norma arautuak! ■

Oharra: Ondarroako Topaketei amaiera bertso hauek abes-tuz eman zitzairen. Eizagirreraren sortan ohar hau zetorren: “Fleuryko espetxetik, gure herria bihotzean”.